



Musika eta umoreaz gozaten.- Zer gertatuko litzateke clown talde batek SuBerri akordeoi taldearen kontzertu bat antzokia haien ekitaldirako alokatua zegoela esanaz geldiarazten badu. Ba akordio batetara iritsi eta bi ekitaldiak tartekatzen direla. Era honetara, larunbata arratsaldean Manuel Lekuona kultur etxera hurbildu ziren herritarrek SuBerri taldearen doinuez eta Tutik Clowns taldearen umoreaz gozatu ahal izan zuten Akorde-kon-fussion ekitaldian. SuBerri akordeoi taldeak estilo ezberdinetako hainbat lan eskaini zituen ekitaldian zehar, hala nola, Chuecaren 'El Bateo' edo 'Bagatela'. Tutik clown taldeko kideek berriz, egoera komikoak sortu eta esketxak eta magia trukoak egin zituzten ikusleen artean barreak eta algarak sortuz. Hala ere, momentu batzuetan biak uztartu eta ondorioz, Tutik Clownseko kideak balleta dantzatu edo saxoa joaz SuBerri akordeoi taldearekin batera Duke Ellingtonen doinuez eskaini zituzten. Amaieran gainera, SuBerri akordeoi taldeko kideak sudur gorritz jantzita ikusteko aukera ere izan zen. Herritarrek txalo zaparrada handiaz eskertu zuten bi taldeen lana.

2 AHAL DU Herritarrei Kongresuaren berri ematen

Lasarte-Oriak Ahal du taldeak alderdiak kongresuan egin duen lanaren berri emateko mahai-informatiboa jarri zuen ostegunean. Honetaz gain, asteazkenean, liburu aurkezpena antolatu du. Villa Mirentxuko hitzaldi aretoan, Luis Gonzalo Segura armadako teniente ohiak 'Codigo rojo' liburua aurkeztuko du 19:30etik aurrera.

3 UDABATZARRA Bi auzoetako obra proiektuak onartu zituen batzarrak

Ostiralean ez ohiko batzarrak izan zen Lasarte-Orian. Urgentziak deitutako batzar honetan bi gai jorratu ziren: Buenos Aire Aldapako espaloiak zabaltzeko proiektua eta Goikale-Kale Nagusia-Askorena guneko urbanizazio proiektua. Bi proposamenak onartuak izan ziren. Hauek Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz egingo dira.

5 ERRAUSTEGIA Rivas herriko esperientzia ezagutzuz

GuraSOsek Orona Ideon antolatutako jardunaldiez baliatuz, bertan parte hartzera gonbidatuak zeuden Javier Navascues 'Rivas Aire Limpio' plataformako buruak eta Clara Perales Rivaseko herritarrek Lasarte-Orian izan ziren larunbata goizean. Madrilgo Valdemingomezeko erraustegiak inguruan sortu dituen osasun arazoei buruz mintzo ziren.



Josue
Igeltseritza S.L.

Igeltseritza orokorra

- Fatxaden estaldurak
- Estalkien berriztatzeak
- Barruko berrikuntzak
- Gremioen koordinaketa

606 37 21 05
Atallu pol. atallu, 28
USURBIL

josueigeltseritza@euskalnet.net

ELECTRICIDAD
ARREGUI

600 857 586

Smart Retail sistema berria dendan!

Ukipen-pantaila erraldoiean gure biltegian dugun produktu guztia eta xehetasunak ikusteko aukera daukazu.
Gainera, guk aholkatuko zaitugu!

On-line denda martxan: tienda.electricidadarregui.com
Gure eskaintza klik batean!

Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943 36 10 80 - Tel/Faxa: 943 37 25 21

POLITIKA

Kongresuan egin den lana azalduz

Lasarte-Oriak Ahal du hautesle taldeak kale ekintza eta liburu aurkezpena antolatu ditu

Podemos-Ahal du alderdiko zinegotziak kalera aterako dira aste honetan taldeak kongresuan egin duen lana azaltzeko. Lasarte-Oriako kideak ostegunean izan ziren Kale Nagusian eta hainbat herritar hurbildu zen haiekin hitz egitera. Ekintza honetaz gain, 'Codigo Rojo' liburuaren aurkezpena ere antolatu dute asteazkenean.

Kongresua zure plazan ekimena du abian Podemos-Ahal du hautesle taldeak. Hori dela eta, lehengo ostegunean, Kale Nagusian Ama Brigitarren komentu parean izan ziren Lasarte-Oriak Ahal du hautesle taldeko kideak.

Bertan Arkaitz Naya, David Ares eta Alicia Garcia udal zinegotziak amaitu berri den lau hilabeteko legealdian haien alderdiak Estatuko kongresuan egin duen lana azaldu zieten hurbiltzen ziren herritarrei.

Era berean, ekintza honetarako bereziki prestatu duten

egunkari bat banatu zieten eta erkidegoko, Gipuzkoako edo udal kontuez ere mintzo ziren.

Zinegotziekin batera, alderdiko beste kide batzuk ere izan ziren, hala nola, Monica Mora Gipuzkoako Batzar Nagusietako kidea egon zen.

Liburu aurkezpena

Bestalde, asteazken honetan, maiatzaren 25ean, 19:30etik aurrera, hautesle taldeak 'Codigo Rojo' liburuaren aurkezpena antolatu du Villa Mirentxuko hitzaldi aretoan.

Bertan liburuaren idazlea,



Alicia Garciak, Davis Aresak eta argazkian agertzen ez den Arkaitz Nayak herritarrekin hitz egin zuten.

L-O AHAL DU

Luis Gonzalo Segura armada-ko teniente-ohia izango da. Luis Gonzalok liburuaren nondik norakoak azalduko ditu. Izan ere, armadari buruzko bigarren liburu hau idazteagatik zerbitzutik kanporatua izan baita.

'Un paso al frente' liburu idazteagatik ere arazoak izan zituen. Epaietarik gabe, 5 hilabete egin zituen preso eta bertan 22 eguneko gose greba egin zuen. Medikuek gomendatuta bertan behera utzi behar izan zuen.

Besteak beste, armada barruan dagoen ustelkeriari, jauntxokeriari edo sexu-abusuei buruz hitz egiten du liburu horretan.

Arkaitz Naya Lasarte-Oriak Ahal duko zinegotziak aurkeztuko du ekitaldia.

Udal aparkamendu libreak

Okendo plazako eta Donostia Etorbideko garajeetako 39 libre geratu dira. Hori eman du jakitera Lasarte-Oriako Udalak, bere jabetzako garajeen esleipen prozesua aurrera eraman eta aparkaleku plazak eskaera egin zuten inguruko bizilagunei banatu eta gero.

Kokalekua eta alokairua

Udalak azaldu duenez, libre dauden plaza horietatik, 35 plaza, Okendo plazako parkinean daude kokatuak eta beste 4ak, berriz, Donostia Etorbideko parkinekoak dira.

Aparkaleku guztiak errentamendu erregimenekoak dira eta hilean 60 euroko kostua dute.



35 aparkaleku geratu dira libre Okendo plazan; 4 berriz, Donostia etorbidean.

Tamainari dagokionez, 17 metro karratu baino txikiagoak dira.

Nola eskuratu plaza

Garaje plaza horietako bat

alokatzeko interesa dutenek Betelu gestoriako bulegora, Aralar plaza 6, hurbildu edo 666 409 194 edota 943 364 886 telefonoetara deitu beharko dute.




Plaza dantza, eguraldiari aurre eginez

Nahiz eta euria egin, igandean plaza dantza saioko kideek ez zuten kale egin. Hilabeteko laugarren igandea izanik, Okendo plazan bildu eta arkupeetan eguraldi txarrari aurpegi ona erakutsi zioten.

Hurrengo hilabetearen ekainaren 26an batuko dira. Hala baina, plaza dantzez gozatzeko aukera izango da hilabetearen zehar egingo diren beste hainbat ekitaldietan. Hitzordu ezberdinen berri emango dugu ekitaldiak hurbildu ahala.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Nerea Eizagirre, Martin Vicioso,
Iñigo Gonzalez.

txintxarri@txintxarri.eus

Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.eus

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Maider Segurola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

EZOHIKO UDALBATZARRA

Buenos Aires aldapako eta Goikaleko obrak onartuta

Urgentziatzko Udalbatzarra deitu zuten

Buenos Aires aldapako espaloien zabaltzea eta Goikale-Kale Nagusia-Askorena guneko urbanizazioa martxan dira. Urgentziaz bildutako Udalbatzarrak bi obrak onartu zituen PSE-EEren, EAJren eta EH Bilduren botoekin. LOAD abstenitu egin zen, eta PPko ordezkaria ez zen azaldu.



Abendurako obrak bukatua egon behar duenez, urgentziaz bildu ziren ordezkariak.

TXINTXARRI

Ostiralean Buenos Aires aldapako espaloiak zabaltzeko eta Goikale-Kale Nagusia-Askorena gunea urbanizatzeko obrak onartu ziren ez ohiko Udabatzarrean.

Alkate Jesus Maria Zaballosek azaldu zuenez, Eusko Jaurlaritzak finantziatutako obra da, eta jarri duten baldintzetako bat da urtea amaitu aurretik obrak bukatuta egotea. Horregatik, "urgentziatzko gaia" dela erabaki dute.

EH Bilduren kritika

Baiezko botoa eman zuen EH Bilduk. Hala ere, nabardurak egin zituen bozeramaile Pablo Barriok. Adierazi zuenez, Jaurlaritzako aurrekontuak onartzearen trukean PSE-EEK eskuratutako ordaina litzateke Lasarte-Orian obra alderdiak Buenos Aires aldapako eta Goikaleko urbanizaziozko proiektuen "kontra"

balitz "ondo" ikusiko zuketela nabarmendu zuen, baina "interes alderdikoia" ikusi zitzutela azaldu zuen. Hala ere, "Lasarte-Oriarentzat onuragarria" zelako eta "aurreko legealdian perfilatuta utzi zelako" eman zion baietza proiektuari.

Alkateak erantzun zion "finantziarioa negoziatioaren ondorio izanaren kritika" ulertzen zuela, baina nabarmendu zuen "Legebiltzarrean eztabadaitu beharrekoa" zela. Defendatu zuen bere Gobernuak egindako lana, "baliabideak bilatu" dituela azpimarratuz.

Halaber, pasa den legealdian EH Bilduk "aterik ez zuela jo" salatu zuen Zaballosek. Bestalde, Barrioki bere alderdiak Buenos Aires aldapako eta Goikaleko urbanizaziozko proiektuen "kontra"

bozkatu zuela gogorarazi zion.

EH Bilduko bozeramaileak azpimarratu zuen ezezkoa eman zuela orduan "egingarriak ez zirelako", arrazoi ekonomikoak zirela medio. "Akordioak lortu izana" ez du kritikatu, baizik eta "dirua era zuzenduan banatzea".

Alkateak ez zuen akusazioa onartu, eta salatu zuen aurreko Gobernuak "Lasarte-Oriarako bereziki informazioa eskaintzen ez duten komunikabideak" finantziatu izana, Garan jarritako publikitate aipatuz. Barriok azaldu zuenez, "komunikabide askotan jarri zen publikitatea eta ikusi beharko litzateke zein proportziotan".

Liskarrak liskar, LOADren abstentzioa alde batera utzita, batzartu ziren talde guztiek onartu zituzten bi obrak.

LANDABERRI IKASTOLA
Atzerako begirada

Landaberi Ikastolak 50. urterena ospatzen du aurten eta zenbait ekitaldi antolatzeko asmoa du, horien artean erakusketa bat.

Erakusketa hau aurrera atera ahal izateko guraso, irakasle eta ikasle-ohien laguntza behar du urteurrenako lan taldeak "materiala jaso ahal izateko".

Lan taldeak adierazi duenez, argazkiak eta bideoak, ikasle-ohien lanak (eskulanak, idazlanak...) eta garai ezberdinetako liburuak bilduko ditu.

Materiala jasotzeko lekuak eta datak honakoak izango dira: Garaikoetxea eraikinean, ostiraletan 12:30etik 13:30era eta Landaberi eraikinean, astelehenetan 12:30etik 13:30era.

Era berean, seme-alabak ikastolan dituzten ikasle-ohiek hauen bitartez bidali ditzaketela azpimarratzen dute.

Lan taldeak entregatzen den materiala ondo identifikatua eramatea (telefonoa eta izena) gomendatzen du, "gero arazorik gabe bueltatu ahal izateko".

Honekin batera, ikastolan igarotako urteetan izandako bizipenen idatzi laburrak ere jasoko dituzte. Zerbait idatziz gero ondorengo posta-elektronikora, landa50@landaberrikastola.org bidali behar da testua.



DYA

Uretako sorospen ikastaroa

DYA Gipuzkoak ekainean, Usurbilen Uretako Sorospen ikastaroa antolatu du.

Uretan aurki ditzakegun arrisku egoerei nola erantzun irakatsiko du. DYAK azaldu duenez, ezagutza oso arruntak dira baina beharrez gero, oso lagungarriak. Teoria eta praktika uztartuko dira modu erosoan.

Saioak ekainaren 4tik 26ra bitartean, larunbata eta igande guztietan izango dira. Larunbatetan, goizeko 09:00etatik 13:00etara eta arratsaldeko 15:00etatik 19:00etara eskainiko da kurtsua eta igandeetan, goizeko 09:00etatik 13:00etara.

Heziketa saioak Usurbilgo Oiardo Polikiroldegian eta DYako Ordezkaritzan, Muna-Lurra, 26 izango dira.

Ikastaroan parte hartzeko beharrezkoa da lehen sorospen eta sorosle ikastaroa aurrez izatea.

Bestalde, ikastaro amaierako frogak gaintzen dituenak, DYA Gipuzkoak eskaintzen duen Uretako Sorosle Titulua eskuratzeko aukera izango du.

Matrikularen kostua, ikastaroko txostena barne delarik 220 eurotako da. Plazak mugatuak dira, ematen den hezkuntza-aren kalitatea bermatzearren. Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak -Arkaute- kurtsu hau homologatu dezake.

Izena emateko edo jarduera honen inguruko informazio gehiago jasotzeko, deitu 943 464 622 telefonora.

Lasarte-Oria Enplegu-Mahaia eratu da

Ostirala goizean, Lasarte-Orian enpleguarekin zerikusia duten entitateak Villa Mirentxun bildu ziren. Helburua Lasarte-Oriako Enplegu-Mahai sortzea.

Urtarrileko Udalbatzarraren onetsi zen organo honen sorrera, otsailean erregelamendua argitaratu zen eta martxoan lanean hastekoak ziren. Ostiralean eman zen azken pauso hau.

Jesus Zaballok alkateak espero du mahai berri hau herrian enpleguaren alde parte hartzeko giltzarri bihurtzea.

Udalak ohar bidez azaltzen duenez, jaio den kontsulta-organo honek erreminta gisa balioko du. Honen bitartez, eragile publiko nahiz pri-



Lasarte-Oriako Enplegu-Mahaia sortu zen ostiralean. Eragile ezberdinak daude honetan,

L-O UDALA

batuen lana koordinatu eta gure herrian enplegu-sustapeneko politikak inplementatuko dira.

Partehartzaileak

Udalak jakitera mean duenez, Enplegu-Mahaian parte hartuko dutela baieztatu duten

entitateak hauek dira: PSE-EE, EH Bildu, ADLOP, EAJ-PNV eta PP udal-taldeak, ELA-STV, LAB, CCOO eta UGT sindika-

tuak eta Aterpea, Lanbide, Usurbilgo Lanbide Eskola, Zubigune, Michelin fundazioa, Donostiako Sustapena, Gureak, Gipuzkoako Bazkuntza, ADEGI, REAS, Elkartu, Aspegi-Emekin eta Gipuzkoako Foru Aldundia.

"Ordezkaritza bikaina, abiatzen ari den lanerako," Udalaren ustetan.

Enplegu-Plana

Jesus Zaballok alkatea lehendakari izango du Enplegu-Mahaia eta aztergaiaren artean aurreikusia dago Lasarte-Oriako Udalak onetsitako Enplegu-Plana aurkeztea, hori izango baita garatuz joan diren lanerako oinarri gisa balioko duena.

Euskal dantza nagusi asteburuan

II. Dantzari eguna eta XXVIII Dantzari Txiki Eguna ospatuko dira

Lasarte-Oriako euskal dantza zaletasuna handia da. Hori dela eta, hurrengo asteburuan Erketz EDT-ren eskutik bi hitzordu berezi izango dira. Larunbatean II. Dantzari eguna egingo da eta igandean, berriz, XXVIII Dantzari txiki eguna. Gonbidatutako taldeei esker, Nafarroa, Bizkaia eta Gipuzkoako dantzak ikusteko aukera izango da euskal dantza nagusi izango den bi egun hauetan.

TXINTXARRI

Ehundaka pauso, buelta, salto eta entsegu orduren ostean, iritsi da urtean zehar egindako lana erakusteko unea. Erketz EDT taldeak bi hitzordu garrantzitsu ditu asteburu honetan, II. Dantzari eguna eta Dantzari txiki eguna.

II. Dantzari eguna

Larunbatean, maiatzaren 28an, arratsaldeko 18:00etatik aurrera, euskal dantzak izango dira nagusi Lasarte-Oria erdialdean.

Lasarte-Oriako Erketz EDT taldeak iazko arrakasta ikusirik, berriro ere Dantzari eguna antolatuko du.

Aurtengoan bi talde berri izango dira herriko taldearekin batera ekitaldian parte hartuko dutenak, Andoaingo Urki eta Faltzeseko Makaia taldea.

Dantzen erakusketa

Arratsaldeko 18:00etan, taldeen desfilea izango da Kale Nagusitik barrena. Sasoea-Zumaburu eskolako Zumaburu eraikinetik atera eta Okendo plazaraino egingo dute ibilbidea.

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, bi geldialdi izango dira bidean, bata

Zumaburuko zaharren egoitzaren parean eta bestea zentroko autobus geltokiaren aurrean. Hauetan talde bakoitzak erakustaldi bat eskainiko du.

Kalejira amaitzean, 19:00ak aldera, ekitaldi nagusia hasiko da.

Talde bakoitzak 20 minutuko emanaldia egingo du eta amaieran oroigarriak banatuko dizkiete gonbidatutako taldeei.

Ostean, hiru taldeek elkarrekin afalduko dute Gizarte Etxea tabernan.

Txikien eguna

Igandean, berriz, dantzari txikiak hartuko dituzte Lasarte-Oriako kaleak. Ohitura handiko ekintza dugu Dantzari Txiki eguna.

Maiatzaren 29an, 200 bat haur eta gaztetxo izango dira haien dantzekin Lasarte-Oria alaitzen.

Erketz dantza taldeko haur eta gazteen taldearekin batera, Nafarroa, Bizkaia eta Gipuzkoako 5 talde izango dira aurtun jaialdi honetan: Faltzesko Makaia taldea, Errenteriako Ereintza dantza taldea, Sestaoko Salleko taldea, Usurbilgo Orbeldi eta Lasarte-Oriako Kukuka Antzerki eta dantza eskolako taldea.



Aurtun ere, Okendo plaza euskal dantzez beteko da asteburuan. Larunbat arratsaldean II. Dantzari eguneko taldeak izango dira plazan.

Herriko kaleak alaitu eta goizeko kalejiran laguntzen, Lasarte-Oriako musikariak izango dira. Aurtun Ttiriki-Ttarraka eskolako kideak dira dantzari txikiak kalez kale joango direnak.

Kaleak alaitu

Egitarauari dagokionez, goizeko 11:00etan hasiko da eguna.

Talde guztiak Zumaburuko Isla plazan batuko dira eta bertan hamaiketako egingo dute.

11:30ean, taldeka trikitilari bikote baten laguntza dutelarik, Lasarte-Oriako auzoetan zehar ibiliko dira. Hainbat geldialdi egingo dituzte eta hauetan talde bakoitzak egun honetarako prestatutako dantzak eskainiko ditu.

14:00etan, talde guztiak Okendo plazan bildu eta arra-

tsalderako indarrak berreskuratzeke, bazkaltzera joango dira.

Emanaldia

Arratsaldeko 16:45ean, hasiko dira ekintzak arratsaldean.

Sei taldeak batu eta Okendo plazatik atera eta plazan bertan amaituko den kalejira txikia egingo dute.

17:00etan, talde guztien emanaldiari hasiera emango zaio oholtzan. Lehenik talde bakoitzeko bikote batek agurra dantzatuko du.

Ostean, talde ezberdinen txanda izango da. Bakoitzak dantza bat edo bi eskainiko ditu. Ikuskizunari amaiera emateko, talde guztiek elkarrekin fandango, arin-arin eta kalejira egingo dute.

Antolatzaileek azpimarratu dutenez, jaialdia bukatu arte denok bertan egotea eskatu eta eskertuko genuke.

Eguraldi txarra izanez gero, Michelingo kiroldegian egingo lirakeke ekintza guztiak.

Ohitura bihurtu

1980-1990 hamarkadan Lasarte Oriako Dantzari Txiki Eguna antolatzeko aukerak aztertu zituen Erketz EDT-k. Haur dantza taldeak dauden herri gehienetan antolatzen zenez, gure herrian antolatzeari ere oso aberasgarria iruditu zen.

Talde ezagunekin harremanetan jarri eta horrela ideia hau aurrera eraman zen.

Erketz EDT-z gain, beste zazpi talde ziren honetan parte hartzen zutenak eta ekaineko bigarren asteburuan egiten zen.

Udalaren laguntzaz, ekimena ohitura bilakatu da eta XXVIII. edizioa dugu aurtengoan.

Baina aldaketa batzuk egon dira urteekin, arestian aipatu legez sei dira azken urteetan parte hartzen duten taldeak.

Eta data ere aldatu da, egun maiatzeko azken asteburuan antolatzen da dantzari txikien jaialdia.

Laguntza

Aurtun ere, Erketz EDT-k Lasarte-Oriako Udalaren laguntza izan du dantzaz beteriko asteburu hau antolatzeko.

Erketz EDT-ko kideek adierazi dutenez, aurtun udalak diru-laguntza "gehixago" eman du Dantzari eguna antolatzeko. Honi esker, Faltzeseko Makaia taldea dator dantzatzera larunbata arratsaldean. Izan ere, Nafarroako taldeari autobusa ordaintzeko erabiliko baitu taldeak dituen kopuru hori.

Erketz EDT-k herritarrak gonbidatzen ditu bi ekimen hauek ikustera eta euskal dantzaz gozatzera.

Soka-dantza

Hau guztiaz gain, Erketz EDT-ko lagunek herritarrak gonbidatu nahi dituzte San Joan bezperako soka-dantzan parte hartzera.

Asteartero 21:00etan Zumaburu-Sasoea ikastetxe-ko Zumaburu eraikineko gimnasioan biltzen dira ekainaren 23an egingo den dantza prestatzeko.

Saio irekiak dira eta edonork parte hartu dezakeela azpimarratzen dute.



Igandean, berriz, dantzari txikiak herriko kaleak alaituko dituzte goizean eta arratsaldean, emanaldia izango da plazan.

Erraustegia eta osasun ondorioak

Valdemingomezko erraustegiaren ondorioak lehen pertsonan ezagutu ahal izan ziren

'Rivas Aire Limpio' plataformaren eskutik, Madrilgo Valdemingomez erraustegiak Rivas herrian eta bere inguruetan izan dituen ondorioez jakin ahal izan zuten larunbata goizean Manuel Lekuonara hurbildu ziren herritarrek, baita kaltetu baten eskutik ere, Clara Perales. Hitzaldia hasi baino lehen berarekin hitz egiteko aukera izan genuen.

TXINTXARRI

Erraustegiak osasunean izan ditzakeen ondorioak azaltzeko larunbatean Madrilgo Valdemingomezko erraustegiaren aurka lan egiten duen 'Rivas Aire Limpio' plataformako Javier Navascues eta Rivaseko Clara Perales herritarra izan ziren Lasarte-Orian.

Plataformak 36 minbizia kasu direla eta erraustegiaren aurka salaketa jarri eta izapidea onartua izan da.

Javier Navascuesek 'Rivas Aire Limpio' plataformako buruak plataformaren sorrera eta honen lana azaldu zuen. 'Rivas Aire Limpio' plataformako kideak azaldu moduan, 5 milioi pertsonen zaborrak erretzen dira bertan.

Bere hitzetan, 1990ean Rivasen erraustegiaren proiektuaren aurka borrokatu zuten, baina ezin izan zuten ezer egin eta 1995ean martxan jarri zen. 2008 urtean, baimen berria eskuratu behar

zuen eta honekin ingurumen azterketa eta azterketa epidemiologiko bat egin behar zuten Madrilgo Udalak baina ez zuen ezer egin. Hori jakinda, lanean hasi ziren eta erraustegiaren inguruan egon diren 36 minbizi kasu oinarri izanda salaketa jarri zutela adierazi zuen.

Hainbat patologia

Clara Perales da salaketa horretan aipatzen den kaltetuetakoa bat. Clara Valdemingomezko erraustegitik 5 bat kilometrotara bizi da. Minbizia zuela jakin arte, osasun arazo ugari izan ditu.

Azaltzen duen moduan, "Ibilbide luzea izan da. 1995ean alergiarekin hasi nintzen, gero asmarekin hasi nintzen. 2008 urtean, bronkoestasia edo bronkioen ehunen ezohiko dilatazioa nuela esan zidaten. Beraz, katarro bat hartuz gero, arazo larriak izan ditzaket. Nekea eta itolarriarekin nengoen eta ez zekiten zer nuen. 2005ean,



Javier Navascues 'Rivas Aire Limpio' plataformako burua eta Clara Perales larunbateko hitzaldiko momentu batean.

fibromialgia nuela esan zidaten. Sistema immunologikoa ere baxua nuen. Azkenean, urgentzietan lau aldiz egon ostean, min handia bainuen alde batean, OTA bat egin eta 2014 urtean ez-Hodgkin linfoma nuela esan zidaten".

Ondorioz, linfomarako tratamendua eta beste zortzi medikamentu hartu behar ditu Clarak egunero. "Linfoma murrizten ari da, baina immunodepresioa duenez ez da guztiz sendatuko". Immunoglobulina txertoa behar du hilabetero, "ni teoriar ezingo nintzateke hemen egon, infekzio bat hartzeko arriskua dudalako".

Hau guztiagatik, bizi kalitate galdu eta bizi itxaropena

murriztu diotela aipatzen du Clarak.

Gainera, osasuna asko zaindu duen pertsona bat dela azpimarratzen du, "ohitura osasuntsuak izan ditut betidanik, jatorduak ere zaintzen nituen, beraz ezin didate esan minbizia ohitura ez osasuntsuei lotua dagoela. Nik argi dut nire gaixotasunean erraustegiak eragina izan duela". "Gaiari buruz egin diren ikerketetan aipatzen den minbizi klaseetako bat dut," atxikitzen du.

Iruzurra

Clarak aipatzen duenez, "niretzat erraustegia iruzurra izan da, bai nire osasunari dagokionez, baita beste herritarren osasunari dagokionez ere".

Bere ustez, osasuna gailendu beharko litzateke beste gauzen gaineratik. "Hondakinen kudeaketarako beste sistema bat ezarri beharko litzateke. Katearen hasieratik murriztu behar dira hondakinak eta herritarren mentalitatea aldatu behar da. Gaur egun dugun kontsumo ikuspengia ez da ona. Planeta bakarra dugu!".

Plataformaren helburua erraustegia itxi eta ingurumen azterketa eta azterketa epidemiologikoa egitea dela aipatu du. "Haiek erakutsi behar dute erraustegia ez dela kaltegarria, baina ez dute egin nahi. Rivasen haur asko dago, zein etorkizun utzi nahi diegu!," azpimarratu du.

Pedalarri eragiten erraustegiaren aurka

Hego Euskal Herriko lurraldeak bizikletaz zeharkatuko duen "AHT eta tokian tokiko proiektu txikitzaileen" aurkako Txirrinka ekimena larunbatean igaro zen Lasarte-Oriatik.

Zubieta eta Usurbilgo lagunekin bat egin zuten lasarteoriarrek Hipodromoko zubian. Guztiak erraustegiaren aurkako aldarria egin zuten.

Herritiko auzo ezberdinetatik ibilbidea egin zuen heldu, gazte, zein haurrek osatutako txirringulartar taldeak. Kale Nagusian Okendo plaza paretik igarotzean Aire Garbia plataformako hainbat kideek erraustegiaren aurkako banderolekin agur egin zieten.

Aire Garbia plataformako kideek Euskotreneko biribilgunean hartu zuten testigua eta Hernanirako bidea hartu zuten guztiak.

Kamixetak

Bestalde, Aire Garbia plataformako lagunak ostirala eta larun-

batean, plataformaren logoa kamixeta ilunetan serigrafiazten egon ziren Okendo plazan.

Hurrengo igandean, maiatzaren 29an Donostian egingo den osasunaren alde eta erraustegiaren kontra Onkologiko eta Diputazio bitartean egingo den giza-katea girotzeko egiten ari den kanpainaren barruan kokatzen da ekintza.

Giza-katean izena ematea

Honekin lotuta, plataformak giza-katerako izena lehenbait lehen emateko deia egin die herritarrei.

"Herrian erraustegiari aurre egiteko sumatzen dugun giroa ezinhobea da eta ez dugu duda egiten Lasartek bere kate-zatia osatuko duela, ederki asko osatu, gainera. Egia da, ordea, hori ez dagoela bermatuta orain arte bildu dugun konpromiso kopuruarekin", adierazi dute antolatzaileek.

Gauzak errazte aldera, astelehenetik aurrera interesatuek izena eman ahal izango

dute Orbela belar-dendan. Okendo plazan hainbat egunetan mahaiak jartzen ere jarraituko dute, orain arte bezala.

Aire Garbiako kideek gogoratzen dute Interneten bidez ere izena eman daitekeela, erraustuez.org webgunean sartuta.

Igandeko giza-katean lasarteoriarrei tokatu zaie Easo Plaza eta Londres hotel bitarteko zatia bermatzea. Horretarako, 500 batlagun behar direla kalkulatu dute.

Hitzordua 11:30ean finkatu dute Easo Plazan. "Katea osatzeko batz besterik ez dugu; beraz, puntualtasuna beharrezkoa da", zehaztu dute.

Aire Garbikoek asteazkenean, hilak 25, egingo dute katea prestatzeko azken bilerara. Arratsaldeko 19:30ean izango da, kultura-etxean. "Laguntzeko prest dagoen edozein gonbidatuta dago, jakina".



Usurbil, Zubieta eta Lasarte-Oriako lagunek erraustegiaren aurka egin zuten Txirrinkan.



Aire Garbia plataformako lagunak kamixetatan logoa serigrafiazten zuten.

GIMNASIA ERRITMIKOA.-

“Gimnasia erritmikoa nire bizitza da”

Gipuzkoako txapelkun izan da Aizpea Arroyo, senior mailan, uztaia eta mazekin

Bost urterekin ekin zion gimnasia erritmikoan aritzeari Aizpea Arroyok. Pasa dira hamabost urte ordutik, hogeitatu orain herritarrak, baina ez du pasio izpirik galdu. Kirol diziplina horretaz hitz egiterakoan, ez dio uzten irribarre egiteari segundo bakar batez ere. Gimnasia erritmikoa bere bizitza da.

IÑIGO GONZALEZ

Lortutako domina guztiak nekez kabitzen zaizkio lepoan Aizpea Arroyori. Senior mailako Gipuzkoako txapelketa izan zen, uztaia eta mazekin. Horrenbestez, sailkapen orokorreko lehenengoa ere izan zen. Denera, hiru domina erdietsi zituen herritarrak.

Asteburu biribila izan zen ordukoa LOKEko gimnasia alorrarentzat. Arroyok lortutakoez gain, Alazne Gonzalez ere igo zen podiumera: hirugarrena izan zen zintekin. “Konpetitu aurretik, esan nion nik podiumera igoko zela, eta begira, lortu zuen azkenean”, gogoratzen du Aizpea Arroyok. Lehen esan bezala, bera ere igo zen podiumera, hiru aldiz.

Txapelketari ekin aurretik urduri zegoela dio, baina denbora gutxian nerbioak poz bilakatu ziren: “Izugarriak izan ziren ondorengo momentuak: egia esan, ez nuen espero irabaztea, eta sentsazioa are bereziagoa izan zen; gainera, nire lagunak eta ikasleren bat edo beste joan ziren txapelketa ikustera, eta indar asko eman zidan horrek”.

Lana, lana eta lana

“Jende askok pentsatzen du erraza dela gimnasia erritmikoan aritzea, esfortzu handirik gabe praktikatu daitekeela, baina hori ez da egia”, nabarmetzen du Arroyok. “Tapizean ikusten denaren atzean lan eta entrenamendu ordu asko daude”. Astean lau aldiz entrenatzen du Arroyok.

Ordu eta erdikoak dira aste tarterko saioak, eta bizpahirukoak asteburukoak. Eta, gero, tokatzen denean, konpetizioak. “Ongi” moldatzen da entrenamenduak eta lana uztartzeko: “Erdi eta erdi egin behar izaten dut askotan, baina neure kabuz ere ahal dudun guztia egiten dudanez, konpentsatzea lortzen dut”, zehazten du.

Arroyoren ustez, gimnastak bere buruari exijitza eta lan egiteko prest egotea garrantzitsua da. “Oreka eta malgutasuna bezalako ezaugarriak oso inportanteak dira, jakina, baina aspektu mentala ere bai. Lan egiteko prest egon behar duzula, zure buruari exijitzeko, bestela ez duzulako askorik lortuko”.

Gimnasta eta entrenatzaile

Txanponaren bi aldeak ezagutzen ditu herritarrak, zazpi eta hamar urte bitarteko gaztetxoei gimnasia klaseak ematen dizkielako. “Maite ditut nire txikiak, oso-oso gustura aritzen naiz haiekin, nik urteotan ikasi dudun guztia transmititzen”, aipatzen du Arroyok.

Bost urte zituela murgildu zen Aizpea kirol diziplina horretan. Oraingo belaunaldiek, ordea, bi urte gehiago itxaron behar dituzte, herritarrak azaltzen duenez: “LOKEk arau bat ezarri du: esaten du gaztetxoei zazpi urte baino gutxiagorekin ezin direla hasi gimnasia egiten; hori aldatzeko borrokan gabilta entrenatzaileok, txiki-txikitatik hartzen baita malgutasuna, eta zazpi bete arte ez badira hasten, urteak galitzen dituzte”.



Hiru urrezko domina lortu zituen Aizpea Arroyok Gipuzkoako txapelketan.



Gipuzkoako txapelketako emaitzak ezin hobekak izan dira LOKErentzat.

SQUASHA.-

Hasi da txapelketako fase erabakigarria

Azken txanpan sartu da herriko squash txapelketa soziala. Izena eman duten jokalariek txapelketa zein kontsolazio faseetan daude murgilduta. Partidak asteleheneretik ostiralera ari dira jokatzeko, Udako Kiroldegian.

Sei jokalarik osatzen dute txapelketa faseko koadroa: iazko txapelketa irabazleak, Iñaki Garcia, Kinin Calvok, Xabier Azaldegik, Xabier Amianok eta Oswal eta Iker Cañedok. Ligaxka moduko bat osatu dute aipatutako horiek, eta denek denek kontra jokatu ostean ikusiko da zeintzuk bi sailkatzen diren finalera.

Kontsolazio faseko koadroa ere osatuta dago: zortzi



Asteleheneretik ostiralera jokatzeko partiduak, Udako Kiroldegian.

jokalaririk ari dira: Raul Mateos, David Miguel, Eneko Gartzandia, Dani Davila, Toño Perez, Imanol Olaizola, Alex Garcia eta Aitor Tejero.

Antolatzaileek esan dutenez, finalak ekainaren 4an

jokatuko dira, larunbatetik, Udako Kiroldegian.

15:00etan kontsolazioa hasiko da. 16:00etan, berriz, 3. eta 4. postuak erabakitzeko. Eta, hori amaitu bezain laster, txapelketa faseko.

LABURRAK.-

Lasarte-Oriako III. MTB gau martxa larunbatean

Maiatzaren 28an, larunbatekin, hainbat txirrindulari abiatuko dira Buruntzazpi elkartetik Plazaolan barrena gau-martxa egitera. Arratsaldeko zazpietarako jarri dute hitzordua, elkartean bertan. 40 kilometro ditu luze ibilbideak. Arratsaldeko 19:00etan Buruntzazpi elkartetik aterako dira herriko hainbat txirrindulari gau-martxa egitera Plazaolan barrena. Izen-ematea doakoa da: Txoko tabernan eta Usurbilgo Errazkin Bizikletak dendan egin daiteke inskripzioa. Antolakuntzak aditzera eman duenez, parte hartzeko derrigorrezkoak izango dira probaren egunean kaskoa eta argiak soinean eramatea.

Sorgin Kroserako izen-ematea zabalik dago

Zabaletako festak prestatzen ari diren auzotarrek gogorarazten dute zabalik dagoela ekainaren 4an –larunbata– jokatuko den III. Sorgin Krosera izena emateko epea. Auzoko dendan, Artizar tabernan edota Antonio Blas plazan apuntatu ahaliko dute interesa duten guztiak. 11:00etan hasiko da lasterketa.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, lasterketaren ostean indarrak berritzeko aukera edukiko dute lasterkariak, hamaiketako goxo bat dastatuz. Ibilbideak 6,6 kilometro izango ditu luze, eta Zabaleta auzoan barrenekoa izango da.

Agenda

Asteartea 24, 17:00etan, Villa Mirentxu



Haurren haserraldia nola kudeatu

'Emozioak onartzen eta haserrealdiak kudeatzen' tailerra antolatu du Gurasolandia ekimenak. Mireia Centenok psikologoak eskainiko du saioa. Lasarte-Oriako 2 eta 3 urtetako gurasoei zuzendua dago. Sabeletik Mundura elkartearekin elkarlanean antolatutako saioa da.

potoak, kareetak, kafe kapsulekin eskulanak (koilareak, brotxeak, diademak)...

18:30etik aurrera, Apar festa eta ur globo gerra.

Osteguna 26

16:30ean, Merendola goxoa.

17:00etan, Puzgarriak eta trebetasun frogak.

19:00etan, Buruhandiak.

Ostirala 27

17:00etan, Zubieta antzerki taldeko ikuskizuna.

17:30ean, Jokoak: aulki joko kooperatiboa, altxorraren bila, herri kirolak...

19:00etan, Afari-merienda eta ondoren disko festa egingo da.

Lasarte-Oria

Liburu aurkezpena

VILLA MIRENTXU

Azteazkena 25, 19:30ean

Luis Gonzalo Segura armadako teniente ohiak idatzitako 'Codigo Rojo' liburuaren aurkezpena. Lasarte-Oriak Ahal du ahutesle taldeak antolatuta.

Dantzari Eguna

OKENDO PLAZA

Larunbata 28, 18:15etik aurrera

Lasarte-Oriako Erketz EDTren eskutik, II. Dantzari eguna egingo da. Andoaingo Urki dantza taldea eta Faltzeseko Makaia taldeak parte hartuko dute. Lasarte-Oriako kaleetatik desfilea eta emanaldia izango dira.

Dantzari Txiki Eguna

LASARTE-ORIA

Igandea 29, goiza

Erketz EDT-k antolatzen duen, 28. Dantzari Txiki egunean, Euskal geografiako sei taldek auzo ezberdinak alaituko dituzte.

OKENDO PLAZA

Igandea 29, arratsaldea

Dantza taldeek alarde txiki egingo dute Kale Nagusian zehar eta ostean, emanaldia eskainiko dute.

Erakusketa

JALGI KAFE ANTZOKIA

Maiatzean zehar

Estudio del Pintor akademiako ikasleek haien lanak aurkeztu dituzte.

ANTONIO MERCERO ARETOA

Astelehena 30- Ekainak 11

Brancussi akademiako ikasleen lanak ikusgai izango dira.

Zubieta

Udaberri Festa

ZUBIETAN

Asteartea 24

16:30etik aurrera, Zubietako Eskola Txikiko haurren marrazki erakusketa.

17:30ean, Ipuin kontaketa, 'Baziren behin, neska abenturazaleak eta mutil ameslariak' Kantukantoi taldearen eskutik.

Asteazkena 25

17:00etan, Eskulanak: txapak, gatza

Hernani

Hernani hitzetan

HERRIAN ZEHAR

Asteartea 24-Larunbata 28, 18:00etatik aurrera

Poesia, ipuinak eta kantuen kultur arteko astea.

Usurbil

Hitzaldia

DYAKO EGOITZA

Ostirala 27, 16:00tan

Egunerokotasunean aurki daitezkeen larrialdi egoerei aurre nola egin azalduko dute. Doako hitzaldi hau edonori dago zuzenduta. Izen ematea: 943 46 46 22 telefono zenbakian, edo irakas-kuntza.eskola@DYAgipuzkoa.com helbidean.

Herritarren txokoa

Odol-ateratzea

Hilabeteko azken astelehenean, maiatzaren 30ean, eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, arratsaldeko 17:30etik 20:30era.

Anima zaitetze, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

Italiara bidaia

Uda honetan Roma, Florentzia... aldeira modu independentean bidaiatzeko 40 eta 55 urte arteko pertsonak osatutako taldea sortu nahiko nuke. Anima zaitetz! Harremanetarako, 667 075 139, Asun. WhatsAppera ere erantzuten du.

Sarean

I. Euskarazko Internet Eguna

Maiatzaren 17an, Interneten Nazioarteko Egunean, jai-giroan ospatu zen I. Euskarazko Interneten Eguna Iruñeko Katakrazen. PuntuEUS Fundazioak, Topaguneak eta Euskalerrri Irratiak antolatuta, euskararen, kulturaren eta interneten alorreko ordezkari ugari elkartu ziren.

Euskarazko Interneten lehen edizioaren helburua arloaren errepaso egin, berrikuntzak aurkeztu, etorkizunaren soslai egin eta euskarazko interneten alde topa egitea izan zen. Asmoa egun honi jarraipena eman eta urtero ospatzea da.

Interneten 25 urte hauetan euskarak egin duen ibilbideari errepaso eginez abiatu zen ospakizuna eta 'Gailurra beti dago gorago' ikus-entzunezko animazioa aurkeztu zen. Marrazki bidezko bideo labur honek euskarak interneten historian eman dituen urrats nagusiak eta izan diren mugarrak jasotzen ditu.

Honetaz gain, bertaratutako guztien artean euskara Interneten indartzeko proposamenak aztertu zituzten parte-hartze dinamika baten bitartez. Horrela, ideia-multzo polita jaso zen eta PuntuEUS Fundazioak konpromisoa adierazi zuen horietako hainbat gauzatze lan egingo duela.

Ekitaldiaren azken zatian *Sarean.eus* ekimen berria aurkeztu du PuntuEUS Fundazioak. *Sarean.eus*, *Internet eta Teknologia*, IKTei buruzko agerkari digital berria da. Hedabide honen misioa, informatu, entretenitu eta kultura teknologikoa euskaraz zabaltzea da. Astero teknologiaren alorreko artikuluak argitaratuko dituzte hainbat adituek.



Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:
Geltoki kalea, 4 943 37 14 48 txintxarri@txintxarri.eus



Hainbat proiektu izan ziren Energia azokan. Jakin-mina sortu zuten, besteak beste kotxe elektrikoak edo galdara sistemek.

Kontsumo jasangarria bultzatzen

Energia azokak harrera ona izan zuen

Energiaren Kontsumo Jasangarriaren astea azoka bereziarekin amaitu zen larunbatean. Herritarrek proiektuen bidez, etxean erabili daitezkeen energia modu ezberdinak ezagutu eta kontsumoa jasangarria izateko produktu batzuk ikusteko aukera ere izan zuten.

TXINTXARRI

Eguzki plakak, kotxe elektrikoak, galdara sistema berritzaileak, ura berotzeko plakak... Usurbilgo Lanbide eskolako energia berriztagarrien proiektuak, zein energia aurrezteko beste produktu batzuk ikusi ahal izan ziren Okendo plazan larunbatean.

Lanbide eskolako kideei esker, herritarrek proiektu ezberdinei buruzko haien jakin-mina asetu zuten.

Gazteek plaka fotovoltaikoekin probak egin ahal izan zituzten.

Etxeko txikientzat marrazki tailerra izan zen eta gainera, zozketa bat ere izan zen. Eguzkiaren energiaren dabilen robota zen saria.

Hau guztiaz gain, Goiener kooperatibako lagunek astean zehar faktura elektrikoari buruz eskaintako hitzaldia berri ere eskaini zieten herritarrei.

Azoka Lasarte-Oriako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Usurbilgo Lanbide eskolak antolatutako ekintza izan zen.

Erakusketa

Goizean zehar, Antonio Mercero aretora hurbildu ziren herritarrek Landaberri DBH4ko ikasleek ateratako argazkien erakusketa ikusi ahal izan zuten.

Ikasleek asteartean Usurbilgo Lanbide eskola bisitatu eta irudiak atera zituzten.

Erakusketa honetan astean zeharreko hitzaldien irudiak ere ikusgai izan ziren.

Eraikina

Ostiralean, berriz, Usurbilgo Lanbide eskolako lagunek Enegur eraikin berria aurkeztu zuten.

Ikasleek eraikitako modulo berri honek Kontsumitzen duena baino energia termiko eta elektriko gehiago sortzeko gai da. Horretarako, eraginkortasun energetiko altua kontuan hartzen dituzten irizpideak erabili dituzte, 'Passivhaus' estandarra erabilita.

Eraikina ikasleek erabili ahal izango dute, baina enpresentzako gune irekia ere izango da.

Oier Aranzabal eskolako zuzendari ordeak, Patxi Vaquerizo zuzendariak eta Begoña Arraizek, Lanbide Heziketako Sailburuordetzako kideak hitz batzuk eskaini zituzten.

Eraikuntza prozesuan parte hartu duten hainbat erakunde edo enpresetako kideek ere azalpenak eskaini zituzten.

Ekitaldian Lasarte-Oriako alkatea Jesus Zaballos eta Beatriz Juez Sozioekonomia batzordeburua izan ziren.



Landaberri DBH4ko ikasleen argazki erakusketa ere izan zen Antonio Mercero gunean.



Proiektu ezberdinak ezagutu edo probatu ahal izan zituzten Usurbilgo eskolako kideen eskutik.



Usurbilgo Eskolak ostiralean Enegur eraikin berria aurkeztu zuen.

LAN-ESKAINNTZA:

Txintxarri aldizkarian kazetaria behar dugu asteburuko jarduna egiteko. Interesatuak bidali kurrikuluma txintxarri@txintxarri.eus helbidera edo deitu 943 37 14 48 telefonora maiatzaren 27a baino lehen.

- **Ezagutzak:** Indesign, Photoshop eta sare sozialak
- **Betebeharrak:** EGA titulua edo C1, gidabaimena eta kotxea

txintxarri